

uzei informa y responde (II)

# zergatik eta zertarako uzei-ren hiztegiak?

UZEIri egin zaion kritikan berak egin dituen hiztegiak astindu dira batez ere. Beraren fruiturik nabarmenenak, ez bakarrik, hiztegiak izan direlako, beharbada horregatik izango da.

Kritikariek, funtsera etorrita, puntu hauxe onartitzat ematen dute: horrelako hiztegiak ez dira oraindik beharrezkoak. Oraina eta geroari buruz hain erabakiorra den arazo honetan UZEIk zer pentsatzen duen azalduko da hemen.

### Premiak hor daude

Abia gaitzen konstatazioazean mundutik: batetik, euskara ikasten eta euskaraz alfabetatzen ari direnen kopurua haundituz doa; bestetik, euskara sartu-bidean dago irakaskuntzan eta, oro har, gizarte-bizitzako maila desberdinetan, egunetik egunera fermuago sartzen ari ere. Ez bide du, beraz, inork ukatzen premiak hor daudela eta, ondorioz, samaldan datozkigen eskeak ugartituz doazela. Begibistako errealtate hori, honez gero, agerigia dateke ezikusariena eginez ukatua izateko. UZEIra datorren eskearen eta berak eskaintzen dituen zerbiztuen organigrama, horixe dago lekuko.

Azken urteotan gure herrian mautu diren faktore bereziki soziopolitiko eta kulturalen eraginez hedatu da euskararen eremua eta, zentzu honetan, gure herriaren etorkizun politiko eta, berarekin batera, hizkuntzarena lotu-lotuerik doa, inoiz baino lotuago joan ere. Une historikoa dugu gure hau.

Horregatik, euskararen gizarteratze-abiada garaitz bideratzen ez bada eta, bidenabar, prozesu honek gorabideari eusten ez badio, haren eragina gero eta ahulagoa izango da euskal gizartearen eta lege soziologikoen heriotzaren kondanatu dute. UZEIk, euskararen geroaren sinetsen denarik, jadanik eginda dauka beraren aldeko apostua.

Euskara aurrera bultzatu nahi badugu, tradizioan finkaturiko hizkuntz berezitasunak (gramatikalak, lexikalak, morfosintaktikoak, fonologikoak, etab.), hizkuntzaren sako-neko egitura osatzen duten elementu horiek hain zuzen, arduraz ikertu eta zaindu beharrezkoak dira. Eta honek, noski, euskararen geroa lehenean oinarritzera garamatza. Lehena eta geroa normalizazio-prozesuaren abiapuntuan bertan inplikaturik daudenez gero, bi erreferentzi puntu horiek behar bezala ez koordinatuz sor liteke desorekariak. Hala ere, arriskuak arrisku, ezin egin daitkeena zera da: tradizioa zaindu beharrenez beharrez, prozesua bera geratu edo balaztatu.

Euskararekiko gizarte-eskeak gaitzeka pilatu zaizkigun une honetan, hizkuntzaren tresnak oraindik kamutsak baldin badira eta, hizkuntzaren egoera halakoxea delako hain zuzen, geure lana geuk nahi genuen perfektioz egitera heldzen ez bagara, UZEIk ez duke horretan beste inork baino erru ge-

hiago. Eta erantzunkizunak inori eskatzekotan, gure ezbeharren historia zakar bati eskatu beharko zaizkio eta ez, ezta inola ere, euskararen normalizazio-prozesu honen barutik une-uneke eta garrantzakerantz egokien bila dabilzanen.

*Lehendik alor berezietan ziharduten talde eta indar barreiatuak bildu, goraka zetorren prozesua beretu eta plangintza-orokor bati begira talde-lanak korrodinatu, horixe besterik ez du egin UZEIk. Asmatu, ez du deus berririk asmatu.*

### Hiztegi berezitu eta sailkatuen beharra

UZEI, beste zenbait ihardueraren artean, hiztegi berezituak egiten ari da. Beharrezkoak al dira? Horixe da kritikak egin dion galdera nagusia.

Kritika-batek ez du uste hiztegi hauek oraingoz beharrezkoak direnik, gaurko beharrei erantzuteko aski bait lirerateke maila apalagoko lanak. Funtsezko arrazoiak bi dira: Lehenengoa, ez daukagula oraindik maila horretako lanak taxuz burutzeko talde gaiturik; bigarrena, Hiztegi teknikoei ekin aurretik oinarritzeko hiztegi arrunta finkatu behar dela.

1.- **Honelako hiztegien beharra sozialki justifikaturik dagoela uste dugu.**

Hori frogatzeko, aski da, BBBko 3. mailako filosofian adibidez, zenbat hitz tekniko erabiltzen den erreferentzi puntuetatik hartzea; batezbeste, 5.000 hitz teknikoetatik gora atertu ditugu hustu diren testuliburutatik. Beste sailekoetatik ere antzeko kopurua atertu da. UZEIk lantzen dituen lexikoak

5.000tik 8.000 hitz eta hitz-kate bitartekoak bait dira, lexiko horiek doi-doi betetzen dituzte aipaturiko irakaskuntz maila horretarako beharrik. Oinarritzeko material hori falta delako, Ikastoletan BBB mailako gai gehienak espainieraz ematen dira. Hori da egia.

### 2.- UZEIren lankidetzat profesionalen osatzen dute.

Beren lanak euskarak lantzen dituen gaur bezaibat talde profesional ez da sekula ezagutu. Talde profesional bakoitzak metodologik jakin baten arabera lantzen du bere saileko hiztegia eta han eta hemen argitaratutako hiztegi berezituak erabiltzen ditu bere lanarako. Ehundaka hiztegi berezituak bertu ditugu, bereziki alemanak, ingelesak, frantsesak, katalanak eta espainolak. Lexikografiaz arduratzen diren nazioarteko zenbait erakunderekin ere harremanetan gaude. Harreman hauetan dagoeneko ikusi ahal izan dugunez, kanpotik jasotako esperientziatik asko ikasi beharko du UZEIk; baina, gurea hain kasu berezia ere izaki, urte batzuek barru zerbait irakastekorik ere izango du.

Ez dugu uste, bestalde, Estatu nazionalen arriroman gauzatu diren hizkuntza modernoak erederik baliagarrienak zaizkigunik gure kasurako, hain zuzen ere Estatuaren babesa falta izan zaiolarren kasu espezifikoa bait da euskararena. Ereduak bilatzekotan, hobe genuke beste nombaitek bilatzea, agian beharieran, txekieran, soumieran, edo zapalduak izan direnen artean. Eta horiek ere ez dira erabat baliagarri, horiek ere Estatu baten jabe bait dira. Horregatik, euskarari ezin eskatuko diogu ingelesari edo alema-

nari, adibidez, eska geniezaieken heldutasuna.

### 3.- Oinarritzeko hiztegi teknikoan aurretik joatea ez da derrigorrezkoa

Euskararen iraganari begira egindako azterketa sakonak ere bahar ditugu lanerako. Pozik hartuak izango dira hain zai gauden eta hain desiratuak diren oinarritzeko hiztegi arauemaile eta historikoa, ez bait dugu zalantzan jarzen argigarri eta aberasgarri izango zaizkigunik. Hala ere, esan dezagun garbiki, ez da arazoirik ikusten UZEIk, harik eta hiztegi horiek argitaratu arte, bere hiztegi-gintza teknikoari uko egin diezaien. Hiztegi teknikoek oinarritze-koen esanera egon behar dutela esateak biribilegia dirudi, gehiago erlatibizatu gabe, isu-itsuan onar dezagun (Katalunian, esaterako: Ponpeu Fabra, 1932; Alcover Moll, lehen bi tomoak 1926-35 eta azkeneko zortziak 1949-62).

Lehenengo. Oinarritzeko hiztegia, tradizionala, nahiz modernoa, aztertu ohi ditugu. Larramendi, Azkue, Lhande, Tournier-Lafitte, Retana, Plazido Muxika, Ibon Sarasola (behin-behinekota), Luis Mari Muxika, Xabier Kintana, Villasante (Auxular) eta abarren hiztegiak kontsultatu ezinik ez dago eta gutziz baliagarri gertatu zaizkigu. Lan hauek ez daukagu baztertzeko, noski. Bestalde, hiztegiak dagokienez, materialik funtsezkoena autore horietan biltzen bait da, iturri horietaz baliatu gara bati-pat. Funtsezko material hori historikoki oinarritzen eta puntualki hobetzen bada ere, ez dugu espero ikerketa horietatik orain arteko hiztegien edukina, are gutxiago teknikoena, funtsezko adinako adinako ekarpenik; hiztegi horietan nahiz literaturan datozen hainbat hitz teknikoak, gure lanean egiaztatuta ahal izan dugunez, ezar gutxi balio dute askotan.

Bigarren. Hizkuntzalariek, hizkuntzari barne-triskantzarik gerta ez dakion, beraren normalizazio-prozesuari alto bota eta itxaroteko eskubidea baldin badaukate, ez dukete eskubide gutxiago Euskal Herria euskalduntzeko aukera eginda daukatenez. Eta maila honetan arrazoi linguistikoei adina balio dute soziologikoei. Hori gutxienik. Eta lehen, batasunerakoan, arrazoi soziologikoei. Hori gutxienik. Eta lehen, batasunerakoan, arrazoi soziologikoei nagusitu baziren, zergatik ez dira mantendu nahi orain? Ez da ahantzi behar sistema marx-tan dagoela, zorionez egon ere, eta egunero soluzioak eskatzen ari

dela irakaskuntzan, administrazioan, komunikabideetan, etab... eta ez dela soluzioa oinarritzapen teknikoaren beharrenez ineanen prozesu linguistikoa bakarrik ez, baizik eta, batez ere, soziologikoa den hori geraraztea. Baze sozialak aukera hori egin badu, UZEI poztu egingo da gehienez, ez damutu.

Hirugarren. Hiztegi teknikoetan, gainera, hizkuntzalariek bakarrik ez, gaien profesionalak direnek era badute beren hitza, eta hauek bereziki. UZEIk, hiztegi teknikoak lantzean, orain arteko hiztegi-gintzari ekarri dion emaitza berria, hain zuzen, hauxe da: gaien adituen lankidetzak. Hizkuntzalariek batetik eta profesionalak bestetik, bakoitzak bere alorreko argitasunak eskaintzen dituelarik, elkarren lehia baino gustorako ikusiko gaituzke bata bestea laguntzen, gure herri hau ez bait da jende gaitutan aberatsegi dauden bakarrak zapuzten ibiltzeko.

### Hiztegien behin-behinekotasuna

Gure hiztegiak behin-behinekota direla diogunean, eta puntu hau behin eta berriz aitortu dugu, ez dugu bezeriarekin koinpluziteki hitz hutsak saldu nahi izan. Gure lanaren halabeharrezko mugak inork baino hobeto ezagutzen ditugulako, horrexegatik genion gure txostenean honako hau: "UZEIko Hiztegiak, oraindik, beren lehen maila daude, geroago batetan dukinez eta hizkuntzaz jasoagoko eta jantziagoko emateko itxaropenez. Hala ere, gaurdaino egindakoak hastapeneko zimentari bai dira hartara iristeko" (UHG, 3.5).

Egia da, hein batetan bederen egia, merkatura doan produktuak bere ukitua uzten duela bezero-eroslearen baitan: produktua sozialki onartu den neurriko, hain zuzen ere. Baina horrek ez bide du ezar frogatzeko UZEIk bere hiztegi-guztiei aitortzen dien behin-behinekotasunaren kontza. Horrelakorik gerta ez dadin nahi bada, bide bakarria geratzen da: hiztegiak ez egieta edo; zehatzago, eginda gero ez argitaratzea. Kritikak hori nahi badu, ez daukagu zer frogaturik.

UZEIk, bestalde, kritika behar du eta eskatzen: etxe-barruko kritika, talde bereziena eta edonorena. UZEIk beti jarri du kritikarien eskuetan behin-behinekota lexiko-zerrenda, argitaratu aurretik kritikatua izan zedin. Jokabide hau lege izan da gure artean.

UZEIren lana, nola ez, kritikagarria da eta kritikatu beharrezko; baina berak dituen milaka hitzetatik han-hemen ehitatutako hitz solte batzuek hartu eta horiek osotasunaren erreferentziarik gabe kritikatzeari kasuistika antzuan ihardutea deritzogu, are gehiago kritika bera kritikatu bezain eztabaidagarria denean. Kritika bai, betor, beharrezkoa dugulako, baina lana bere osotasunean hartuta eta barurrik aztertuta.

UZEIko langileak

